

# Hatz eta behatz

*Gidaliburua*

iKas

euskal pedagogia zerbitzua

Ustiapen pedagogikoaren edukia :

Isabel Casenave, Luixa Giltzu, Maider Igoa, Maialen Tapia irakasleak
eta Yves Haran pedagogia aholkularia.

marrazkiak : Marko Armspach
mugimenduen itxurak : Gwenaëlle Bidondo

# Aitzin solasa

*Kantirur*iren ondotik, berriz heldu gatzaizkizu lehen zikloko (2-5 urteko) eta berdin bigarren zikloko (7 urte arte) haurrendako ikasmaterialaren eskaintzera : 25 bertso-ipuin, erhi[1] jokoen oinarri.

Horietarik zenbait euskal ondaretik heldu zaizkigu (*Xirrixti-mirrixti...*), beste batzuk ondare unibertsaletik moldatuak (*Txalo txalo...*) eta beste multzo bat bilduma horren apailatzen ari izan diren iraskasleek berek asmatuak (*Argi-oilarrak...*).

Bi alor nagusiren lantzea daukate helburu, Frantziako hezkuntza ministeritzaren programen arabera :

- Hizkuntza : bertso-ipuinek haurra laguntzen dute euskaran trebatzen (ahozkatzen), aberasten (hiztegia, joskera), eta idatziari hurbiltzen (lotura eginez entzuten eta ikusten duen testuaren artean).

  Egoera bakoitzean, lehentasuna eman diogu hizkuntza nozio bati. Irakasleak nozio hori maiz erabiliz eta eredu horren erabiltzea eskatuz, haurrak horren betekizuna eta beharra senditzen du, anitz aldiz entzuten dituen erranaldiak konparatuz eta errepikatuz. Gisa honetan, hizkuntza ez da egitura ariketen bidez lantzen baina eguneroko biziak, proiektuek eta egoera naturalek eskaintzen dituzten paradak baliatuz.

- Motrizitatea : erhiekin, eskuekin eta gorputzarekin egin mugimenduen bidez, erritmoari jarraikiz, mugimendu edo keinu horiek ideien itxura izanki, gainera.

Halarik ere, gidaliburu honek beste jakintasun andana baten lantzeko parada eskaintzen du : jendarteko bizitzari dagozkionak (haurrak arauak ulertzen eta onartzen ditu eta jokamoldea iharduerei egokitzen), denborari eta espazioari dagozkienak (haurrak bere burua leku batean eta denbora hurbilean kokatzen du), metodologiari dagozkionak (haurrak memorioa azkartzen du), matematika alorrean (haurra hasten da zenbatzen), besteak beste (ikus eranskinean dauden bildumak).

Hori guzia haurra ahal bezainbat egile edo berdin sortzaile eginez, josta giroan.

[1] erhi : hatz, behatz.

# Bilduma hau nola erabil ?

Bilduma honela osatua da :

- **25 kolorezko marrazki eta bakoitzari dagokion testua.** Biak (marrazkia eta testua) elkarren ondoan eman behar dira ikasleen agerian.

- Kolorezko marrazkiaren beste aldean, irakasleak **bertso-ipuinaren testua eta esku mugimenduen itxurak** aurkituko ditu.

- Agerian emaiteko den bertso-ipuinaren testuaren beste aldean, **ikaslearen marrazkia** eskaintzen dugu. Irakasleak behar bezainbat aldiz fotokopiatzen ahalko du, ikasleek margo dezaten.

  Marrazkien azpian lekuño bat utzi dugu, ikasleak hitz bat edo zenbait idatz ditzan berak.

- **Gidaliburuan bertso-ipuin bakoitzari dagokion gainerako ustiapena heldu da eta bukaeran, landu diren jakintasunen bildumak.**

Bertso-ipuin bakoitzarentzat ariketa edo joko andana bat proposatzen dugu, honela sailkatuak :

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ hizkuntzaren lantzeko (ahoskera*, hiztegia...)

012345678910 matematiken lantzeko (hiruzpalau bertso-ipuinetan bakarrik)


iharduera zenbait asmatu ditugu; horren karietara landu hizkuntza nozioak, eskuin aldean agertzen ditugu.

Bestalde, **proiektu bat** (edo bi) badago bertso-ipuinaren izenburutik landa : zeharkako gaia da. Haurrak, bere ikasketez jabetzeko, jakin behar du zergatik eta zertarako dituen gauzak egiten. Ondorioz, gogo gehiagorekin ari da.

Azkenik, **beste bertso-ipuin** zenbait emendatzen ditugu : ez dute erhi jokorik eskaintzen (non ez dituen irakasleak berak asmatzen...); iduritu zaigu hizkuntzaren aberasteko balio dutela.

Bertso-ipuin bat hautaturik, irakaslea kolorezko marrazkitik abia daiteke, ikasleen mintzarazteko. Ondotik heldu da bertso-ipuinaren deklamatzea. Egunean oren laurden batez arituz, zenbait egunen buruan haurrek gogoan atxikia dute. Orduan erhi jokoa egin daiteke eta bukatzeko ariketa edo joko bat (ikus adibide zenbait gidaliburuan). Ez da bide bakarra : irakaslea erhi jokoarekin has daiteke, bertso-ipuina kondatuz.

Bilduma hau, eskola publikoetako zein pribatuetako irakasle multzo baten lanari esker argitaratzen dugu. Ustiapena artoski apailatua izanik ere, beti hobetzen edo osatzen ahal da. *Kantiruri* gure lehen argitalpenaren karietara egin genuen gisan, aldi honetan ere gomitatzen zaitugu, irakurlea, zure oharren eta proposamenen helaraztera.

---

*ahoskera :

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Xistukari frikariak : | /s/ (graf : z) | - /ś/ (graf : s) | - | /š/ (graf : x) |
| Xistukari afrikatuak : | /c/ (graf : tz) | - /ć/ (graf : ts) | - | /č/ (graf : tx) |
| Dardarkariak : | /r/ (graf : r) | - /r̄/ (graf : rr) | | |
| Leherkari belareak : | /k/ (graf : k) | - /g/ (graf : g) | | |
| Leherkari sabaikariak : | /ṱ/ (graf : tt) | - /ḓ/ (graf : dd) | | |

# Aurkibidea

## Bertso-ipuinak


**1** Olentzero 5
**2** Piko, piko 6
**3** Atabalak 7
**4** Oiloak 8
**5** Txalo, txalo 9
**6** Gure gatua 10
**7** Bi gizon lodi 11
**8** Eskuak txalo 12
**9** Esku joko 13
**10** Arraina 14
**11** Erhi potots jauna 15
**12** Xokoleta 16
**13** Bost erhi 17
**14** Erhi pitiña 18
**15** Arroltzeak 19
**16** Merkatura 20
**17** Eskuak garbiak ditut 21
**18** Oiloa 22
**19** Argi-oilarrak 23
**20** Uhainak 24
**21** Peio eta Maddi 25
**22** Xirrixti-mirrixti 26
**23** Zamalkari 27
**24** Sagarra 28
**25** Suhiltzaileak 29


## Eranskinak


Jakintasunen bildumak 30
Beste bertso-ipuin zenbait 37




# Olentzero



**Haurrekin ordularia egin hamabi zenbakiekin eta orratz batekin, egunero erabiltzeko.**

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

## Antonimoak

| | |
|---|---|
| bete/hustu | botzik[1]/triste |
| oroitu/ahantzi | nigarrez/irriz |
| sartu/atera | handi/tipi |
| joan/etorri | [1] pozik |

*Ari izan* aditz-lokuzioa.
*Egon* aditz trinkoa.
nor eta nor-nork indikatiboan.
– *Mikel sartu da.*
– *Xantik zakua hustu du.*
– *Maider botzik dago / triste dago / nigarrez ari da.*

### Domino jokoa

botzik/triste, joan/etorri, sartu/atera... irudi batzuen bidez adibide horiek itxuraturik eman eta domino edo kate joko bat egin aurkakoak juntaraziz.

### Mintza jokoa

*Bete/hustu, sartu/atera, botzik/triste...* esaldi luze baten osagailu izan daitezke : adib. – *Maider <u>sartu</u> da ikasgelan, <u>hustu</u> du bere zakua mahai gainean eta <u>botzik</u> jarri da bere jargian.*
Ikasleek esaldi bera eman behar dute, hitz antonimoak erabiliz.

012345678910

## Zenbakiak

| | |
|---|---|
| bat | bost |
| bi | sei |
| hiru | zazpi |
| lau | zortzi... |

### Zenbaketa (lehen jokoa)

Irakasleak zenbaki bat erraten du eta ikasleek galdetu bezainbat erhi erakutsi behar dute. Gauza bera alderantziz : ikasleak bere ikasle lagunei galdetuz.

nor-nork aginteran.
– *Erakuts ezazu : hiru.*

### Zenbaketa (bigarren jokoa)

Irakasleak zenbaki bat botatzen du eta ikasleek kopuru horri dagokion bezainbat gauza ekarri behar dute. Gauza bera alderantziz : ikasleak bere ikasle lagunei galdetuz.

nor-nork indikatiboan eta aginteran.
– *Erakuts ezazu : hiru.*
– *Erakuts itzazu hiru erhi.*
– *Ekarri dut/ditut...*

### Zenbaki bat gorde

Irakasleak hamar arte kondatzen du eta erabakitzen du ikasleekin zenbaki baten baztertzea. Kondaketa egin daiteke denak errondan (aldizka ikasle bakoitzak eman behar du egokia den zenbakia). Huts bat egiten duen haurra kanporatua da.

### Kondaketa mutuaren jokoa

Irakasleak : « bat, bi, (isilik), bost, sei, (isilik), zortzi... » Ikasleek bete behar dituzte isiluneak zenbaki egokiak erranez.

nor-nork indikatiboan.
– *Ahantzi dut/duzu/dugu : hiru.*

# Piko, piko



**Entzunezko loto bat egin haurrekin, ondotik jokoan aritzeko.**

## Joskera

-KA aditzondo atzizkia : pikoka, lasterka, txioka, karakaka…

### Animaliak mima

Animalia batzu mima. Beste adibide batzu atzeman (eztulka, herrestaka, ostikoka, igerika, saltoka…).

### Animaliak iruditan

Animalia eta jende batzuen marrazkiak egin eta eskuetan erabil hizkuntzaren lantzeko. Haurrek marrazkiak altxatu behar dituzte galdera haiendako denean eta erantzun, adibidez :
– *Maider dabil lasterka.*

-KA atzizkia.
– *Nor dabil lasterka ?*
– *Nor oihuka ?*
– *Nor saingaka ?*
– *Maider dabil lasterka.*
– *Xakurra ari da saingaka.*

## Animaliei dagozkien hotsak

| | |
|---|---|
| xitoa | txioka (ari da) |
| xakurra | saingaka / zaunkaka / xanpaz. |
| gatua | miauka |
| astoa | arrantzaka |

-KA aditzondo atzizkia
– *Nola ari da xitoa ?*
– *Xitoa txioka ari da.*

### Jokoa

Haur batek animalia baten garrasi, oihu edo orroa egiten du, eta gero denen artean animalia hori nola ari den asmatu behar dute. Jokoa alderantziz ere egin daiteke.

*Miau, miau !* miauka ari da. – *Gatua miauka ari da.*
*Uau, uau !* saingaka ari da. – *Xakurra saingaka ari da.*
Gauza bera egin baina ahoarekin mimatuz
(oihu edo orrorik gabe).

## Entzunezko lotoa

Entzunezko loto bat egin animaliak eta beren hotsak oinarritzat hartuz.

nor-nork indikatiboan.
– *Xakurra entzun dut.*
– *Gatua entzun duzu…*

# Atabalak



**Domino edo memory joko bat asma haurrekin.**

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

## Aurpegia

Aurpegiko bost atalak izenda eta haurrei galdegin erakuts ditzaten (begia, sudurra, ahoa, belarria, azala edo larrua...).

### Jokoak

Domino, hunkimen loto, memory joko bat erabil aurpegiko edo buruko atalez mintzatzeko.

## Sentsuak edo zentzumenak

| | |
|---|---|
| sudurra | usnatzeko |
| begia | ikusteko |
| ahoa | dastatzeko |
| belarria | entzuteko |
| larrua | senditzeko |

### Irudiak eskuetan

Sudurra, begia, ahoa... eta beste gauza batzuen irudiak eskuetan erabil. Haurrak bi marrazki hautatzen ditu (adib. sudurra eta lilia) eta gisa honetako galderei erantzuten :

-KO destinatiboa.
– *Zertarako duzu sudurra ?*
– *Usnatzeko.*
– *Zeren usnatzeko ?*
– *Liliaren usnatzeko.*
Jokoa irakaslea eta ikasleen artean egin daiteke edota ikasleek beren artean ere.

### Gauzak ikus eta hunki

Hiruzpalau gauza erakuts eta utz haurrei eskuetan ikus eta hunki ditzaten. Adib. sagarra/lorea/danborra... Erabil daitezke zentzumenen lantzeko.

nor indikatiboan.
Ezezko formak.
*Baina* juntagailua.
– *Lorea ez da entzuten baina usaintzen da.*
– *Danborra ez da usaintzen.*

### Bi sarbideko taula

Bi sarbideko taula asma daiteke arbelan, alde batean gauzak eta bestean zentzumenak eta behar den lekuetan kurutze bat eman. Ohar gaitezen gauza bera entzuten, senditzen, dastatzen... ahal dela.

nor indikatiboan.
Ezezko formak.
*Baina* juntagailua.
– *Danborra ez da usnatzen.*
– *Lorea ez da entzuten baina usnatzen da.*

### Hunkimenaren lantzeko

Gauza zenbait gorde zaku batean eta eskuarekin hunkituz asma zer den.

nor indikatiboan.
*hau, hori, hura* erakusleak.
– *Hau lilia da.*
– *Hauek liliak dira.*

### Entzumenaren lantzeko

Irakasleak gauza batekin arrabotsa egiten du eta ikasleek, begiak hetsirik asmatu behar dute zer den.

nor indikatiboan.
*hau, hori, hura* erakusleak.
– *Hau danborra da.*
– *Hauek danborrak dira.*

# Oiloak



- **Baserri baten bisita egin eta gero erakusketa bat antola.**
- **Loto bat asma daiteke lotura eginez animalien eta beren umeen artean, ondotik horrekin jostatzeko.**

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

## Ahoskera

/ś/, /š/, /s/ bereizi behar dira.
– *Oilo **x**uri ka**s**u **z**uri.*
Xistukari frikarien eta afrikatuen arteko erkaketa egin daiteke :
ba**s**oa / o**ts**oa,
**x**akurra / e**tx**aldea,
**z**aldia / i**tz**ala.
Esaldi bat asma *otsoa* eta *basoa* hitzekin. Adib. *Otsoa gure etxe gibeleko basoan gorde da eta otsoaren umeak ez dira basotik ateratzen.* Irakasleak ongi ahozkatu behar du. Haurrei erranarazi behar die. Gero erranaldi bera irakasleak hartzen du; xistukari frikariak eta afrikatuak ez ditu berak ahozkatzen baina haurrei erranarazten.

## Hiztegia : animaliak beren umeekin

*Ahuntza pittikaren ama da.*
*Behia ahatxearen ama da.*
*Ardia bildotxaren ama da.*

### Mintza gaitezen

– *Oiloa xitoaren ama da.* Gisa honetako perpausak haurrei eginaraz : ahuntzarentzat, behiarentzat, ardiarentzat, etabar.

**-(R)EN jabego genitiboa.**
*– Oiloa xitoaren ama da...*

## *edun aditz laguntzailea

***edun eta izan** aditz laguntzaileen bereizteko eta ergatiboari ohartarazteko ixtorioaren segida asma. *Axeriak oilo koloka ahoan dauka... eta gero ?* Ikasleek erranaldiak osatu behar dituzte aditz laguntzailea edo deklinabide kasuak ongi emanez.

## Talde dinamika

Haurrak eta irakaslea errondan daude, xutik; animaliak mimatzen dituzte. Lehen aldian (edo lehen aldietan), irakasleak mugimenduak erakusten ditu eta besteek mugimendu horiek imitatzen dituzte. Beraz irakaslea da gidaria.
Ondotik, ikasleak, aldizka, gidariak izanen dira. Ikasle bat gelatik aterako da eta irakasleak, errondan direnen artean, gidari bat izendatuko du. Kanpoan zegoena sartzen da eta gidaria nor den asmatu behar du (Imitazio jokoaren eramailea).

**Ergatiboa.**
**nor-nork indikatiboan.**
*– Nork egiten du zaldiarena ?*
*– Eztitxuk egiten du.*

## Janariak eta jaleak

Iruditan eman *jale* eta *janariak* : oiloa, gatua, xakurra, axeria, hezurra, sagua... Irudiak pareka formulazio hauek erabiliz :

**nor-nork indikatiboan.**
**Ergatiboa.**
*– Axeria gose da :*
*axeriak oiloa jan du.*
*– Gatua gose da :*
*gatuak sagua jan du.*
*– Xakurra gose da :*
*xakurrak hezurra jan du.*

# Txalo, txalo

**Amuaga (kanabera) bat presta « arrantzan aritzeko ».**



## -txo eta -ño atzizki tipitzaileak

| | |
|---|---|
| esku | eskutxo |
| uso | usotxo |
| arrain | arraintxo |
| haur | hauriño |
| emazte | emazteño |
| poliki | polikiño |

## Agintera

| aginduak bati | aginduak denei |
|---|---|
| itzul zaitez | itzul zaitezte |
| aira zaitez | aira zaitezte |
| gorde zaitez | gorde zaitezte |

## Arrantza jokoa

Amuagak egin eta, ikasleek arrainak lotarazi behar dituzte gako batzuen bidez. Matematika ariketa bat egin daiteke arrainei zenbaki bat emanez.

nor-nork indikatiboan.
Aditzaren aspektua : *harrapatu/ko.*
*– « Zazpia » harrapatu dut.*
*– Nik « zortzia » harrapatuko dut.*

## Motrizitatea

Errotatxoarena, arraintxoarena, igeltxoarena, usotxoarena, sugetxoarena egin mugituz gelan edo kanpoan.

# Gure gatua



- **krakaden[1] kartoizko zakutxoa egin.**
- **Orriazal bat egin klaseko lanen biltzeko.**

[1] apairu arina

## Ahoskera
/ś/ eta /s/ fonemak erabil Mustafa, zifu, zapi hitzekin.

## Aditza aginteran
Erranaldi hauek klasean erabil :
– *Tiraiozu biloa, trikota, beharria, sudurra…*
– *Emaiozu panpina Luxiri.*
– *Emaiozue / tiraiozue…*

## Antonimoak
atera/sar, kanpora/barnera.
Gatuaren aztaparrak sar eta atera (mima).
Eskuak kanpora atera.
Eskuak sakeletan sar.
Mihia kanpora atera.
Mihia ahoan sar.

**Mima jokoa : haurrek ekintza horiek berak antzezten dituzte.**

## Animaliekin erabiltzen ditugun hotsak eta hiztegi berezia

| | |
|---|---|
| « *zapi* » « *pitxitxi* » | gatuari |
| « *te* » « *tto* » | xakurrari |
| « *purra, purra* » « *ttitta, ttitta* » | oiloari |
| « kuttin, kuttin » « tturrin, tturrin » | xerriari / urdeari. |

### Mugimendu jokoa
Hotsen hiztegi berezi honekin, haurrek mugimendu jokoetan parte har dezakete : hots berezi bat entzutean, animaliaren mugimendua mimatuz edo berdin oihua eginez.

## Eskulana
Krakaden atxikitzeko zakutxoa egin haurrekin kartoia tolestuz, moztuz eta itsasiz.
Lepokoak egin, haria eta perlak erabiliz. Perlak *sar* edo *atera* haritik.

Deklinabidea : -TIK/-N.
nor-nork indikatiboan.
– *Nik perla gorria sartu dut harian.*
– *Nik perla berdea atera dut haritik.*

## « gigognes » edo errusiar panpinen jokoa
Handitasunaren arabera bata bestearen barnean sartzen diren eite bereko gauzak.

Aditzaren aspektua.
Deklinabidea : inesiboa eta ablatiboa.
– *Kutxa gorrian sartuko dut.*
– *Nondik atera duzu eta non ezarriko duzu kutxa hori ?*

# Bi gizon lodi



- **Bidaia bat egin oihanera larrazkenaz hitz egiteko eta uzten ezagutzeko. Erakusketa bat antola.**
- **Larrazkeneko uzten inguruan, loto, domino edo memory jokoak egin haurrekin, gero gelan jostatzeko.**

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

## Ahoskera

**au, ai :** aukera, haurra, intzaurra, taula, mahaia, zaila, sabaia...
**h :** a<u>h</u>oa, <u>h</u>aurra, a<u>h</u>urra, <u>h</u>erria, <u>h</u>au, au<u>h</u>erra, be<u>h</u>arria, be<u>h</u>arra, be<u>h</u>ia...

## *Ondotik* adizlaguna

– *Onddoak bildu ditugu aldapan eta ondotik etxean moletan jan.*
– *Xakurra kanpora joan da eta ondotik desagertu da.*
– *Eman zaitez lerro berean Xabiren ondotik.*

### Denboraren neurketa

Bi agindu eman haurrari *ondotik* erabiliz eta manuak bete behar ditu ordena kronologikoan. Adib. *Argia itzal eta ondotik leihora joan zaitez.*

**Denbora adizlagunak eta aditzondoak :**
*ondotik, lehenik , gero, aitzinetik...*
*– <u>Lehenik</u> Maider etxean sartu da eta <u>gero</u> amarekin hasi da margotzen.*

### Espazioaren neurketa

Gauza bera espazioan oinarrituz :
– *Eman zaitezte denak lerroan Maiderren ondotik*
(kasu : ondotik ≠ ondoan).
– *Eta orain, Maider, eman zaitez lerroan besteen ondotik.*

**Irudi sekuentzialak erabil eta ipuin laburrak berriz erranaraz.**

## Hunkimenaren lantzeko

Bertso-ipuin hau larrazkenean balia daiteke eta irakasleak edo ikasleek gelara ekarri uztak erabiliz hunkimenaren lantzeko. Adibidez Kim jokoa antolatuz : gauzak oihal baten azpian gorde, eta haurrak eskuarekin zer den asmatu behar du.

**nor-nork indikatiboan.**
*– Sagarra hunkitu dut.*

## Dastamenaren lantzeko

Haurrari begiak hets eta ahora eman fruitu puska bat (gaztaina, sagar, intzaur...). Haurrak ezagutu eta izendatu behar ditu.

**nor-nork indikatiboan.**
*– Udarea jan dut.*

# Eskuak txalo

**Mozorroak egin ihauterikari.**



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

## Ahoskera

a) Xistukari frikariak eta afrikatuak : /ś/, /š/, /s/ → /ć/, /č/, /c/
*Zarta, ditzagun, xafla*

b) Dardarkariak : /r̄/, /r/
Tira, karra, torra...
Hitz hauen bereizketa egin : tiri/tirri, mara/marra, hori/horri, ura/urra...

Esaldi hau erranaraz : « *Esku batekin urra ezazu orri hori eta uraren gainean emazu.* »

## Aurpegiari dagokion hiztegia

*kopeta, matela, sudurra, ahoa, ezpaina, kokotsa, beharria, begia, bekaina...*

**Zein da falta ?**
Izendatzen ez den aurpegi atala, zein da ? Falta dena atzeman.

**Buruaren atalez baliatuz,** loto jokoa egin.

« **Jakesek erran du** » jokoa egin.

nor-nork indikatiboan / aginteran.
-KO atzizkia.
Ezezko formak.
– *Sudurra erran duzu.*
– *Begia ez duzu erran.*
-KO (aginterazko perpaus osagarria)
– *Jakesek erran du sudurraren hunkitzeko.*

## Mozorroak egin

## Motrizitatea

Ezker/eskuin : lateralizazioa lantzen ahal da, begien, belarrien, matelen inguruan.

Agintera
– *Har ezazu eskuineko belarria...*

## Simetriaren lantzeko jokoa

Orri batekin, aurpegi baten itxuraren lortzeko haurrei orriaren tolestea eta moztea galdetzen zaie. Begiak, ezpainak, sudur ziloak eta belarrien inguruak simetrian agertzen dira orri hori berriz zabaltzean.

## Marrazki lana

Ikasleak bururatu behar du irakasleak hasi duen marrazkia :

nor-nork indikatiboan.
Aditzaren aspektua.
– *Sudurra marraztu dut.*
– *Begia marraztuko dut.*



# Esku joko



## Ahoskera

/k/ eta /g/ leherkari belareak
*kikila, laguna, nagusia, kaiola, erakuslea, nagia, …*

/ć/ eta /č/ xistukari afrikatuak
*Pototsa, bilintxi, balantxa…*

*« Bilintxa, balantxa, arratsaldean, pototsa sartu da. »*
Esaldia erranaraz.

## Erhien izenak gogoan har

Galderazko egiturak erabiliz :
– *Zein da erhi kikila ?*

Agintera (nor-nork) erabiliz :
– *Erakuts ezazu erhi pototsa.*

Agintera (nor-nori-nork) erabiliz :
– *Erhi pototsa erakuts iezadazu.*

Ezezko forma perpaus bakunean :
– *Hori erhi kikila da ?*
– *Ez, hori ez da erhi kikila, hori erhi* pototsa da.

## Erhien margotzen

Haurrek behatzak margotzen dituzte kolore ezberdinez eta honelako galderak egin ditzakete :

-Z instrumentala.
nor-nork indikatiboan.
– *Zein kolorez margotu duzu erhi pototsa ?*
– *Pototsa berdez margotu dut.*

# Arraina

**Arrain untzi bat egin gelan eta erakusketa bat antola.**



## Ahoskera

/k/ *ttiki, igerika, ideki...*
/t/ bustidura : *ttiki, amatto, ttitta, Kattin, Pettan, ttaka-ttaka...*

Esaldi hau bustidurak erabiliz erranaraz. *Adib.* :
– *Petan eta amato sartu dira xakur tipiaren tegian eta Patu haundia agertu zaie.*

## Harridura adierazleak

*To ! No ! Hara ! Hori ! Soizu ! Begira !*

## Itsas mundua

« *burbuila* » hitza irakasleak azaltzen du.
Non egiten da igerika ? *Itsasoan, errekan, igerilekuan...*
Itsas animalia mota zenbait : *amuarraina, marrazoa, izurdea, etabar...*

**Bi sarbideko taula** egin daiteke

nor indikatiboan.
**Ezezko formak.**
– *Arrain gorria itsasoan bizi da.*
– *Ez, arrain gorria ez da itsasoan bizi*

| | itsasoa | erreka | arrain untzia |
|---|---|---|---|
| marrazoa | | | |
| arrain gorrria | | | |
| amuarraina | | | |
| izurdea | | | |

## Antonimoak lantzen

Handi/tipi :
Marrazoa arrain *handia* da.
Arrain gorria arrain *tipia* da.

Ideki/hetsi :
Ahoa *idek*, ahoa *hets*.
Atea *idek*, atea *hets*.

## Arraintegia egin : eskulana

Arrain untzia egin (edo egina ekarri) eta kartoizko arrainak lot. Tipiak eta handiak, gainean eta beherean ezar eta mintzatzeko parada eman.

**-N inesiboa.**
– *Non da arrain tipia ?*
– *Arrain tipia gainean / eskuinean / beherean da.*



# Erhi potots jauna



- **Erhiei txontxongilo itxura eman, gero antzezteko.**
- **Etxe barneko ingurugiroa sor. Kartoizko etxea egin edo kanpoko jostalekuan etxola eraik. Ondotik beste ikasgelei erakuts.**

## Erhiekin mugimendu zehatzen egiten treba

esku bateko erhi guziak tolestu eta, aldian-aldi, bat atera eta izenda.

nor-nork indikatiboan.
Agintera.
*– Erhi pototsa atera ezazue/sar ezazue.*
*– Erhi nagia atera dut.*

## Itzal antzerkia

Haur bakoitzak pertsonaia edo animalia bat mimatzen du erhiak mugituz eta antzerki bat antolatzen dute denek elgarrekin, solasaldiak gehituz.

nor-nork indikatiboan.
*– Nik otsoarena egin dut.*
*– Guk liliarena egin dugu.*

## Beste antzerki bat

Joko moldean, haur batek besteen etxeak bisitatzen ditu...
Adib. :
– Kas, kas, kas, Patxi hor zirea ?
– Xo lo naiz... !
Horrela zenbait aldiz. Eta azkenean :
– Kas, kas, kas, Gaxuxa hor zirea ?
– Kasu ! Harrapatuko zaitut !

nor-nork indikatiboan.
Aditzaren aspektua : -TZEN/-KO.
*– Nork harrapatu zaitu ?*
*– Xantik harrapatu nau.*
*– Harrapatuko zaitut.*

# Xokoleta[1]

[1] Txokolatea



**Xokoletarekin errezeta bat egin besta baten karietara.**

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

## Nor-nori aditz forma : zait/zaigu/zaizue

### Kuku-gordeka jokoa

Haur bat taldetik desagertzen da eta jakinean ez den batek, laster asmatu behar du zein den.
– *Nor gorde zaigu ?*
– *Panpi gorde zaigu.*

### Begiak hetsirik

Haur batek begiak hetsirik dauzka eta aldian-aldi, lagunak mintzatzen zaizkio :
– *Nor mintzatu zaizu, Peio ?*
– *Maddi mintzatu zait.*

## Gehiago/gutiago

Nozio horien lantzeko, era ezberdinetako eskulanak edo berdin sukaldaritzako errezetak erabil.

## Erritmoaren lantzeko, taupada jo

Haurrak binazka edo bi taldetan eman :
Bokalak erraitean zangoekin lurra jo.
Perpausak direnean, eskuekin izterrak jo.
Gauza bera egin daiteke bokalen eta kontsonanteen bereizteko.

## Errimaren lantzeko

Bokal bat hauta eta erranaldiaren muturra asma.
Adib. :
« *A, A, A, nik badut biziklet**A**...*
*E, E, E, biziki dut nik mait**E**...*
*I, I, I, harekin naiz ibilk**I**...*
*O, O, O, gauaz egiten dut l**O**...*
*U, U, U, oilarrak kukurruk**U*** »

## Bilduma

Katalogoetan, janarien sailean, xokoletadunak motz eta itsas.

# Bost erhi



**Haurrek jendeen edo animalien esku edo zangoen hatzak[1] margotzen dituzte. Bestalde, igeltsua edo buztina erabil dezakete hatzen moldatzeko. Burrasoendako erakusketa antola.**

**[1] aztarnak, arrastoak.**

012345678910

## Matematika

Osaketak ahoz.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 |
| | | | |
| 4 | 3 | 2 | 1 |
| 5 | 5 | 5 | 5 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 |
| | | | |
| . | . | . | . |
| 5 | 5 | 5 | 5 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| . | . | . | . |
| | | | |
| 4 | 3 | 2 | 1 |
| 5 | 5 | 5 | 5 |

## Borobiltegia egin

**-KO destinatiboa**
*– Bost osatzeko, lau eta bat behar dira.*




Izan daiteke lepoko bat perlaz egina.

borobilak manipula. Adib. : *1 eta 4, 5 dira*

Osaketak ahoz :
*1 eta …, 5*
*2 eta …, 5*
*3 eta …, 5*

*… eta 4, 5*
*… eta 2, 5*
*… eta …, 5*



## Margo lana

Matematika osaketak ahoz egin eta, ariketa bakoitzaren irudikatzeko, irakasleak eskuen marrazki zenbait ikasleei banatzen dizkie eta galdatzen erhiak bi koloretan eman ditzaten.
Adib. : *1 berdez , 4 gorriz.*

**-Z instrumentala.**
**Leku-aditzondoak.**
*– Bat egin dut gorriz.*
*– Nik lau egin ditut berdez.*
*– Hemen gorriak dira.*
*– Hor urdinak dira.*

## Erhiak mugimenduan

Ikasleak, zenbaki baten entzutean, erhi kopuru egokia erakusten du.

**Aditza aginteran.**
*– Erakuts itzazu bost.*
*– Erakuts ezazu bat.*

# Erhi pitiña



## Hitzen erranahia

*Kusia* : Ikus ikasgelako haur bakoitzak kusirik baduenetz bere familian.
*Zorria* : Non atzemaiten da ? (irudiak eta argazkiak lagungarri).
*Zorri hiltzailea* : Zer da ? Erakuts keinua eginez.

## Antzerki laburra

Eman haur bakoitzari erhi baten betekizuna (erhi pototsarena, pitiñarena...) eta joko tipi bat asma.

nor-nork indikatiboan.
Ergatiboa.
– *Nik kusiarena egiten dut.*
– *Zuk Lanpetrirena egiten duzu.*

## Marrazkia

Haur bakoitzak bere eskuaren ingurua orri batean marrazten du. Erhiak izendatu arau, bakoitza kolore batez margotzen du eta gisa honetako solasaldiak egiten :
– *Nolakoa da erhi pitiña ?*
– *Erhi pitiña gorria da.*

## Eskulana

Ikasleek, kartoizko eraztunak egin eta, margotu behar dituzte.

nor-nork indikatiboan.
-N inesiboa.
Aditzaren aspektua.
– *Zein erhitan eman duzu eraztuna ?*
– *Erhi pitiñan eman dut.*
– *Nik erhi nagian emanen dut.*

## Erhien motrizitatea

Ukumiloa / ukabila egin esku batean eta erhiak banazka izendatzean, altxa.

nor-nork indikatiboan.
– *Altxa ezazu(e) erhi pototsa.*
– *Pototsa altxatu dut.*

# Arroltzeak

**Erhi txontxongiloak : bat egurra, bestea sua, arroltzea..., pertsonaiak asma eta antzerki ikusgarria antola.**





## Arroltzeak mintzagai

*Zer dago barnean ?* Gorringoa / zuringoa.
*Nola jaten da ?* Kuskuan, moletan (tortilan), freiturik, gogorturik, ...
*Zein janaritan aurki daiteke ?* Adibidez bixkotxean.
Hiru galdera horien inguruan ekimen franko asma daiteke.



## Antzerki jokoa

Bertso-ipuinean dauden bost egintzak berriz azaldu eta, haur bakoitzari funtzio bat ematen zaio eta elgarrekin antzezten dute. Ikasle batzuek bertso-ipuineko egintza bat mimatzen dute. Une berean, besteek, irakaslearen « *Zer egiten ari da ?* » galderari, erantzun behar diote.

**Aditzaren aspektua.**
**ARI IZAN** aditz-lokuzioa.
– *Nik egurra ekarri/ko dut.*
– *Zuk sua eginen duzu.*
– *Zer ari da Julen?*
– *Julen sua egiten ari da.*

## Errezeta

Arroltzeak kuskuan presta.

## Arroltze irudiak simetriaren lantzeko

Irakasleak neurri guzietako arroltze marrazkiak erditik mozten ditu, nahasten eta ikasleei banatzen. Hauek arroltzeak berriz osatu behar dituzte.

**-(R)EN** zabego genitiboa.
**Ezezko forma.**
– *Arroltzearen erdia atzeman dut.*
– *Ez dut arroltzearen erdia atzeman.*

# *Merkatura*



- **Kartoizko etxe bat eraik ikasgelan eta honen estrena antola.**
- **Merkatu plazaren bisita. Merkatuko saltzaileak eta abere merkatuaren ezagutza egin eta, bilduma edo erakusketa asma.**

ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

## ***Hetsi* eta *ideki* aditzen ulermena eta erabilera**

*Begiak, beharriak eta eskuak idek eta hets : irakasleak aginduak eman eta, ikasleek egintzak burutu behar dituzte. Ikasleak ere agintari izan daitezke aldizka.*

Kartoizko etxean :

- *Idek ezazu leihoa, ahoa...*
- *Leihoak, ateak idek itzazu eta hets itzazu.*



## Taldea mugimenduan

Haur talde batek, errondan, eskuz-esku loturik, arrain sarea osatzen du. Beste ikasleak arrainak dira. Arrainek sarea zeharkatzen dute (beso azpitik pasatuz) barnetik kanpora eta kanpotik barnera. Sarekoek zenbakiak kantatzen dituzte finkatua duten zenbaki bateraino. Zenbaki hori kantatu bezain laster, sarea hesten dute (besoak jauts). Sare barneko arrainak preso dira eta sare handiagoa harrapatuekin osatuko dute hurrengo kantuan. « 1,2,3... sarea **hets** edo **idek**... » izan daiteke kantu doinu batekin emana. Jokoa, arrain guziak harrapatuak direlarik bukatzen da.

-N inesiboa.
nor indikatiboan.
Aditza aginteran.
*– Xabi barnean/kanpoan da.*
*– Idek/hets ezazue sarea.*

## Domino jokoa etxe irudiekin

etxe handiak, tipiak, gorriak, berdeak...

nor indikatiboan.
Erakusleak.
*– Etxe hau tipia da.*
*– Etxe hori handia da.*

## Ipuina

*Hets/idek* egintzen lantzeko balia daiteke *Otsoa eta pittikak. Albums du Père Castor. Flammarion (euskaratua).*

# Eskuak garbiak ditut



**Haurrek beren eskuen hatzak[1] margotzen dituzte. Bestalde, igeltsua edo buztina erabil dezakete hatzen moldatzeko. Ondotik, erakusketa apailatzen dute burrasoentzat.**

[1] aztarnak, arrastoak.



## Ahoskera

/ś/ fonemaren lantzeko hitz hauek errepikaraz : ha**s**iera, o**s**a**s**una, i**s**opa, **s**alda, **s**o**s**a, **s**a**s**oina…
« *Sasoinaren hasieran, sortu da Susana.* » esaldia errepika.

Irakasleak esaldi bat erraten du. /ś/ fonema entzutean, ikasleek eskua altxatzen dute.



## Motrizitatea

Zein bere haztarnen bila : haur bakoitzak bere eskuen ingurua marrazten du. Irakasleak denen lanak biltzen ditu, nahasten eta lurrean hedatzen. Ikasleek eskuak ongi pausatu behar dituzte, eskuina eta ezkerra ongi bereiziz.

**nor-nork indikatiboan.**
**Erakusleak inesiboan.**
– *Ona atzeman du/duzu/dugu.*
– *Ongi sartzen naiz honetan/horretan.*

## Eskuen garbitzen ikasi

**Izenordainaren** ***noren*** **kasua.**
**Izenlagunak pluralean.**
– *Ene eskuak garbiak dira.*
– *Zure eskua garbia da.*

## Taldea mugimenduan

*Elgarri so/bekoz-beko/sahetsean/bizkarrez eman zaitezte.*
Taldean bikoteak osa eta joko horretan ikasle guziak sarraraz.
Gehi daitezke : *belauniko, jarririk, kokoriko, ixtaklok, etzanik, ahuspez, etzanik gora begira, …*
Xoria, arraina, ahatea edo igelarena egin. Jokoa luzatzen ahal da hartza, behia edo beste animalia batzuekin.

**nor aginteran.**
– *Eman zaitezte bekoz-beko.*
– *Eman zaitez bizkarrez.*
**nor-nork indikatiboan.**
**Aditzaren aspektua.**
– *Nik ahatearena egiten dut.*
– *Zuk hartzarena eginen duzu.*

## Mozorroak

Pastila gorri batzu eman kopetan, mateletan, sudurrean, begietan, eskuetan… eta ondotik molde honetako erranaldiak eginaraz :
– *Kopeta gorria dut.*
– *Matelak gorriak ditut…*

**nor-nork pluralean.**
– *Kopeta gorria dut.*
– *Matelak gorriak ditut.*

# Oiloa



**Arroltze[1] moleta bat egin pazko garaian.**

[1] arrautza

## Ahoskera

/r/, /r̄/ dardarkariak
Arroltzea, herria/eria/erhia, hiria/irria, haria/harria... Gauzak konkretuki erakuts eta hitzak errepikaraz.
« *Ene herrian eriek irri guti.* » eta « *Hari eman iezaiok berri.* » erranaldiak errepikaraz.

## Aditza

*Hartu, hautsi, bota, jan...* aditzen inguruan, *edun (nor-nork) aditz-laguntzailea eta ergatiboa erabil.
– *Nik hartu dut.*
– *Nik hartu ditut.*
– *Nork hartu du arroltzea ?*
– *Nik hartu dut.*
– *Zuk bota duzu gatza ?*
– *Bai, nik bota dut.*

## Hemen, hor, han aditzondoak

### Ikasleak non

Irakasleak agindurik (*Maider, jar zaitez hor*), ikasleak ikasgelako gune zehatz batzuetan kokatzen dira. Gero haur bakoitzak toki berezi batean gauza bat ezartzen du eta erranaldi bat asmatzen du erakusleak erabiliz. Adib. : – *Nire arkatza, han dago.*

Aditzondoak
– *Nire arkatza han dago.*

## Talde mugimendua

Haurrak errondan daude. Bertso-ipuina errepikatuz, bakoitzak bere aldian, erhi baten jokoa egiten du. Tipiarena gertatzen zaionak baztertu behar du. Bertso-ipuinaren deklamazioa bukatzen da jokolari bakar bat gelditzen denean.

nor-nork indikatiboan.
– *Nik gatza bota dut.*
– *Zuk egurra ekarri duzu.*

## Antzerki laburra

Haur bakoitzak egintza bat mimatzen du eta besteek zein den asmatu behar dute.

# Argi-oilarrak





**Argi-oilarraren txontxongiloa egin eta antzerkia asma.**

**« musuka »** gisako beste adizlagun batzuk eman : *laster**ka**, hesa**ka**, itzuli**ka**, gibel**ka**, aitzin**ka**, zehar**ka***. Hitz hauen erabiltzeko harat-hunat franko asma daitezke.

## *Joan/eduki* aditz trinkoak

– *Nola zoaz ?*
– *Gibelka noa.*
– *Nola zoazte ?*
– *Aitzinka goaz.*
– *Nork dauka kukurusta ?*
– *Oilarrak dauka kukurusta.*

## Perpausa ezezko forman

– *Ahateak kukurusta badu ?*
– *Ez, ahateak ez du kukurustarik.*



## Dantza

Dantza bat asma daiteke haurrak errondan emanez eta bertsoaren hitz berak hartuz, esku jokoa gorputz joko bilakaraziz, gora, behera, itzulika...
Dantza hori txontxongiloekin ere egin daiteke.

# Uhainak



- **Ekaitza denean itsasoa irudika horma-irudi batean.**
- **Itsas portua bisita eta bilduma bat egin.**




## Ahoskera

**/ś/ eta /š/** xistukarien arteko ezberdintasunaren lantzeko, xistukariak dituzten hitzak errepikaraz : *x̲oria, s̲aindua, x̲ixupika, s̲inestea, x̲okoleta, x̲ix̲tuan, x̲ax̲aka...*
*« Xoria sasitik xixariari sartzeko dio erraiten. »*
Molde honetako esaldiak errepikaraz.

## Eguraldia

*Haizea, ximixta, ortziria (trumoia)*, eguraldiari dagozkion hitzak erabil.



## Eskulana

Paperezko haize errota edo parpaila egin.

## Gorputz adierazpena

Ikasleek ekaitzaren giroa antzezten dute. Arraunketan hasten dira. Ikasle bakoitzak funtzio bat betetzen du : batek haizea, besteak ortziria... eta ekaitza indartsuago eta arraunketa lasterrago, gero emekiago...

nor-nork indikatiboan.
Agintera.
Aditzaren aspektua.
– *Zuk haizearena egin duzu.*
– *Nik ortziriarena eginen dut.*
– *Egin ezazu haizearena.*

## Irudiak bil

Ekaitzari dagozkion irudiak bil eta erakusketa bat egin.

# Peio eta Maddi



**Grabaketa saioa kanpoan : magnetofonoan kanpoko hotsak graba eta muntaia egin ondotik beste gelakoei aurkezteko.**

## Agurtzeko formulak ikas

*egun on, bihar arte, agur, ikus arte, adio, ez adiorik...*

### Antzerki laburra

Haurrek, binaka edo taldean emanak, agurtzeko formulak antzezten dituzte. Eguneroko ihardueretan ere baliagarri dira.

## Hets/idek

Ikasgelako atea, leihoak, liburuak eta beste gauza asko balia daitezke hitz horien erabiltzeko.

### Paper tolestea

Abere baten ahoa egin eta, *idek/hets* mugimendua eginaraz.

Agintera
– *Idek ezazu/hets ezazu ahoa.*



## Aditzaren aspektua

Animalien hotsen inguruan « *entzun* » aditza eta haren aspektua : -TU/-TZEN :
Haur bakoitzari bi animaliaren hotsak eginaraz :
– *Zer entzun dugu ?*
– *Xakurrraren hotsa egin dut.*
– *Zer entzuten dugu orain ?*
– *Zezenaren orroa egiten dut.*

## Taldea mugimenduan

*Nola egiten du ardiak ?*
*Nola egiten du behiak ?*
Asto, oilo, oilar, untxi (lapin), xakur, gatu, xori... haurrek animalia anitzen orroak egin ditzakete.
Haurrek ikasgelako espazio guzia hartzen dute. Irakasleak animalia izendatzean (adib. behia) jokolariek mimatzen dute.

**-(R)EN jabego genitiboa.**
**Aditzaren aspektua.**
– *Zuk oiloaren hotsa egin duzu.*
– *Nik astoaren orroa eginen dut.*
– *Egin ezazu haizearena.*

## Zezenari dagozkion giro eta irudiak

Bilduma bat egin (korrida, San ferminak, ...).

# Xirrixti-mirrixti



- **Bilduma bat edo erakusketa bat egin janariak eta edariak oinarri.**
- **Sorginen gaua asma.**
- **Baratze baten bisita egin baratzezainak lagundurik.**

## Janariak/edariak : zer da jaten, zer edaten ?

Adibideak eman janari/edari sailkapenaren arabera : esne, ogi, arroltze, jogurt, zopa...

### Apairuak

jan/edan aditzak erabiliz, azken apairuak aipa eta ondokoak asma.

nor indikatiboan.
Aditzaren aspektua.
*– Zer jan duzu atzo ?*
*– Zer janen duzu egun ?*
*– Ogia jaten da.*
*– Ura edaten da.*

## Ahoskera

*Ikimilikiliklik ! :* haurrak, hitz horren erraten saiatzen dira ; beste hitz luze zenbait asmatzen dituzte eta errepikatzen. Hortarako egoera berezi bat sor daiteke : Sorginen gaua da eta sorginek behar dituzte gauza miresgarriak egin formula luze batzuk erabiliz.

## Hitz-jokoa

Irakasleak edo ikasle batek janari eta edari izenak erraten ditu eta ikasleek aldi oro ihardesten diote :

| | |
|---|---|
| (jaten denean) | « kikiri ! » |
| (edaten denean) | « hurrup ! » |
| (ez delarik ez jaten, ez eta edaten) | « ikimilikiliklik ! » |

Bestela egin daiteke : ikasleek kartoizko irudiak edo zinezko janariak esku menean dituzte eta irakasleak « kikiri » erratean, ikasleek jaten den gauza bat hartzen dute eta erakusten.

# Zamalkari

**Zaldi eskola bat bisita eta argazki bilduma egin burrasoei aurkezteko.**





## Ahoskera

/ś/, /š/, /s/ ⇒ xistukari afrikatuak /ć/, /č/, /c/
Adibidez :
jau<u>zi</u> ⇒ jan<u>tzi</u>
a<u>za</u> ⇒ ha<u>tza</u>
i<u>xi</u>lik ⇒ a<u>txi</u>k
u<u>so</u> ⇒ o<u>tso</u>
« *Uso bat airean eta otso bat azpian, biak osasun onean.* »
erranaldia errepikaraz.

## Non, nondik, nora

putzuan / handik / harat
putzutik / kanpora

### Nondik nora jokoa

Putzua, zalditegia, pentzea... irudika lurrean marrazki batzuen bidez eta haurrak ibiltzen dira batetik bestera beren ibilbidea aitzinetik asmaturik.

nor indikatiboan.
**Deklinabidea** : ablatiboa, adlatiboa.
– *Zu pentzetik joan zara.*
– *Ni zalditegira joan naiz.*

## *edun aditz laguntzailea

nor-nork : nau/hau/haute/zaitu/zaitut...
Kirol edo motrizitate egoera batean hunkimen joko bat asma.
Ikasleen artean jokoa egin eta forma hauek erabil :
– irakasleak edo ikasleak : *Nor<u>k</u> hunkitu <u>**zaitu**</u> ?*
– ikasleak : *Jone<u>k</u> hunkitu <u>**nau**</u>.*

# Sagarra



- **Larrazkeneko uztak aipa : udare, gaztaina, piko, mahats... Fruituen argazki erakusketa apaila.**
